

## **FITXA: 222 - ÁLAVA - Arabako Lurralde Historikoko kuadrilletan eta udaletan turismo jarduerak 2026ko ekitaldian sortutako gastuei aurre egiteko laguntzak.**

<b>Nori zuzendua:</b> a) Arabako Lurralde Historikoko udalak edo kuadrillak. b) Arabako Lurralde Historikoko udalak, baldin eta turismo-bulego bat badute eta azken bost urteetako gutxienez lautan zerbitzuak ematen badituzte, dela zuzenean, dela zeharka, sektore publikoko udalaren mendeko erakunde baten bidez.	
<b>Deialdia:</b> ALHAO - Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala	<b>Deialdiaren data:</b> 2026/04/10
<b>Sarbide-esteka:</b> <a href="https://egoitza.araba.eus/eu/-/arabako-toki-erakundeetan-sortutako-turismo-jarduerako-gastuei-aurre-egiteko-laguntzak">https://egoitza.araba.eus/eu/-/arabako-toki-erakundeetan-sortutako-turismo-jarduerako-gastuei-aurre-egiteko-laguntzak</a>	
<b>Erreferentziazko araudia:</b> 197/2026 Erabakia, martxoaren 31koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. - <a href="https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2026/041/2026_041_00982_E.pdf">https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2026/041/2026_041_00982_E.pdf</a>	
<b>Eragin eremuak:</b> Turismoa	
<b>Zenbatekoa:</b> 384.516,00 €	
<b>Aurkezteko lehen eguna:</b> 2026/04/11	<b>Aurkezteko azken eguna:</b> 2026/05/08
<b>Aurrerakina:</b> Ez da zehaztu.	<b>Aurrerakinaren gehieneko %a:</b> Ez da zehaztu
<b>Gehieneko zenbatekoa:</b> Gastu mota bakoitzerako gehieneko zenbatekoak zehazten dira.	<b>Gutxieneko zenbatekoa:</b> 1.000,00 euro, oro har, eta 1.500,00 euro kuadrillen eta 20.000 biztanletik gorako zuzenbidezko biztanleria duten udal onuradunen kasuan.
<b>Tramitazioa:</b> Norgehiagoka.	

### **Laburpena**

Deialdi honen xedea da Arabako Lurralde Historikoko kuadrillei eta udalei laguntzea 2026ko ekitaldiko turismo sustapeneko jarduera gastuak edo gastu arruntak estaltzea.

## **Diruz lagundu daitezkeen jarduerak**

- A) Lineako eta lineaz kanpoko publizitateari dagozkion gastuak.
- B) Turismoa sustatzeko doako materialak diseinatzeko, egiteko, maketatzeko, itzultzeko eta inprimatzeko gastuak. Kontzeptu honetan onartuko dira diseinu grafikoari, liburuxkak eta kartelak egiteari eta flyer-ei dagozkien gastuak.
- C) Turismo produktuak eta ekitaldiak sortzea eta abian jartzea.
- D) Bisita gidatuak eta bisita eta tour birtualak egiteak sortutako gastuak.
- E) Turismo bulegoak nahiz turismo informazio eta interpretazio zentroak kudeatzeko gastuak.
- F) Turismo arloan Eusko Jaurlaritzaren lehiakortasun programak ezartzeko kanpo aholkularitzako gastuak.
- G) Erabilerarako ingurumen planak eta/edo kudeaketa eredu adimendunak eta/edo jasagarriak.
- H) Estatuko turismo azoketara (Fitur, B-Travel, Expovacaciones eta Intur) joateko gastuak, soilik kuadrillenak.
- I) Inguruko turismo baliabideei buruzko argazki erreportajeak eta ikus-entzunezkoak, baldin eta erakunde kontratzaileak argazkien jabetza bereganatzen badu eta dohainik erabiltzeko eskubidea ematen badio Arabako Foru Aldundiari.
- J) Turismoko familiarizazio bidaiak (Fam-trip, blogtrip eta press-trip deritzenak) antolatzea, helmuga komunikabideetan erakusteko eta bisitariak erakartzeko; eta bisita teknikoak antolatzea, lanerako metodologia oso zehatz eta dinamikoarekin eta oso helburu zehatzak jarrita, besteak beste, ikastea eta gure lurraldera ekarri ahal izango diren ideia berriak bilatzea.
- K) Aurkezpen zuzenak Arabako Lurralde Historikotik kanpoko eremu geografikoetan, soilik kuadrillentzat.
- L) Turismoko azterlan edo plan estrategiko bat egiteko gastuak, kuadrillen kasuan bakarrik.

## **Jarduera-ildoak**

Ez da zehaztu

## **Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak**

Diruz lagundu ahal izango dira inolako zalantzarik gabe proiektuak abian jartzeko la gungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak.



## **Gastuetarako aldi hautagarria**

Deialdi honen onuradunak diren erakundeek 2025ko abenduaren 13tik 2026ko abenduaren 18ra bitarteko aldian egin beharko dituzte inbertsioak.